Eguzki eta Ilargi

Eguzkia eta Ilargia jainkosa emeak dira, Ama Lurraren alabak. Beste izen batzuk ere badituzte: Eki eta Argizagi, esate baterako.
Eguzkiak uxatzen ditu gauekoak, izaki kaltegileak gauez bakarrik ibiltzen baitira oro har; eguzkia irtetean, ahalmen osoa galtzen dute. Eguzkia sartzerakoan, honela esaten da: «Eguzki amandrea badoa bere amangana», Ama Lurraren altzora, alegia.
Ilargiari dagokionez, ekialdetik irteten denean, honela galdetzen zaio: «Ilargi amandrea, zeruan ze berri?». Bestalde, galdera berbera egiten zaio Ilargiaren sinbolo den Amona Mantalgorri edo Marigorringori: «Amona Mantalgorri: zeruan zer berri?». Eta erantzuten da: «Zeruan berri onak, orain eta beti».
Bestalde, Ilargi izena 'hilen argia' esanahiarekin ere lotzen da; antzinako sineskeria baten arabera, Ilargiak argitzen omen ditu hildakoen arimak; nolabait, hildakoen arimek Ilargian hartzen dute atseden. Ilargiaren beste izen bat Argizagi da, *argizari* hitzarekin lotua, hildakoei eta arbasoei argi egiteko pizten zaien argizariarekin, alegia.
Ostirala da Ilargiaren eguna; egun horretan biltzen dira nagusiki sorginak eta aztiak. Pertsona sorginduen objektu magikoak ostiral batean erre behar dira ilargiaren argitan, bidegurutze batean.

El Sol y la Luna son divinidades femeninas, hijas de Ama Lur (la Tierra). También se las conoce como Eki (Sol) y Argizagi (Luna).
El Sol ahuyenta a los espíritus malignos. Son los gaueko (los que se manifiestan de noche), que pierden su poder al amanecer.
Al anochecer, se dice que el Sol se retira al seno de la Tierra: «Eguzki amandrea badoa bere amangana» (La abuela/madrina Sol va donde su madre). Entonces, cuando asoma por Oriente, a Ilargi amandre (la abuela/madrina Luna) se le pregunta: «Ilargi amandrea, zeruan ze berri?» (Luna abuela/madrina; ¿qué nuevas traes del cielo?). La misma pregunta se le hace a Mantalgorri o Marigorri (la mariquita *coccinella*), símbolo de la Luna: «Amona Mantalgorri: zeruan zer berri?» (Abuela Mariquita: ¿qué nuevas traes del cielo?).
El nombre Ilargi significa 'luz de los muertos' (*hil argi*) y procede de una antigua creencia según la cual la Luna alumbra las almas de los difuntos. Por eso también se la conoce como Argizagi, palabra derivada de *argizari* (cera) y relacionada con las velas que se encienden para iluminar a los antepasados.
El viernes es el día de la Luna, en el que se reúnen preferentemente las brujas y los brujos. Por eso, los objetos mágicos de las personas embrujadas deben ser quemados los viernes, a la luz de la luna y en una encrucijada de caminos.